

Ez dakit zein unetan

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Ez dakit zein unetan iruditu zaidan ideia ona egoera honetan etxetik ezkaratzerako atea zeharkatzea eta igogailuan sartzea. Bai, igogailutik ari naiz berriz ere, eta behera noa, berriz ere; oraingoan bi haurrekin. Tira, seme zaharrena ez da zehazki haur bat: oraintxe bertan, gehiago da garrasi bat hanka eta besoekin, amorrazio ibiltari bat, ogro txiki bat. Aldamenean du anaia gaztea, begiak ezin zabalago, bere oihuei begira. Eta gero ni, neure buruari esanez heldua ni naizela, kontrola nirea dela; hartzeko arnasa, berak ezin duela frustrazio hori kudeatu; kaleko haize freskoarekin baretuko zaizkiola estres-hormona denak, kolpean.

Pentsamendu horietan kopetako izerdi tantei puzka nabilela, espero

baino lehenago gelditu da igogailua: atea zabaldu, eta hirugarreneko bizilagun gazteak pare-parean, “Mona Lisa”-rena izan zitekeen erdi-irribarre batekin, guk antzezten dugun koadroari begira. Ez dugu hitzik trukatu, baina, denok ulertu dugu ez zegokiela kabinan sartzen saiatzea ere. Bagoaz behera, eta, zerogarrenean, lurrean, kaleko haizea arnastetik gertuen dagoen pisuan, adineko emakume bat zain. Kasketa ikusi, eta ez zaio ezer hoberik otu, semeari «ez zaitetz haserretu» gazteleraz esatea baino.

Zenbat aldiz entzun beharko ote du esaldi hori bera, intonazio, hitz-hurrenkera eta metaforatan kamuflatuta? Mantra bat da, nola haurrentzat, hala helduontzat. Ez zaitetz haserretu, ez

apurtu ordena soziala, ez molestatu jende estandarrari, zeren, haserretzen bazara, ezkaratzetik kalera irten, eta terrazan dauden guztiek begiratuko diote zure negarrari, zure ezinegonari, zure gardentasun xaloari.

Mundu honek hala maite baikaitu haurrak eta emakumeok: politak eta isilik. Eta, argazki-perfektu-mutu hori dantzarazten hasten garenero, zerbait gogorarazten digu zein den bizitzan tokatu zaigun tokia: bazterra, txokoa, ertza. Eta, hala, normalak iruditu behar zaizkigu haurren presentzia onartzen ez duten ezkontza-ospakizunetarako gonbidapenak, edo ‘Adults only’ hotelak. Ez dakit zein unetan hasi den arau bilakatzen norberari enbarazu egiten dion oro. •

Izenarekin barrezka

Miren AZKARATE
BADIOLA

Miren Azkarate. Hori da nire izena eta nire lehen abizena. Baina ez da nirea bakarrik. Badira beste batzuk ere izen-abizen horiekin, eta horien artean jende ospetsua dago. Ez da nire izenarekin soilik gertatzen, ziur baduzuela norbait inguruan...

Txikitatik entzun behar izan dut «Ui, Euskaltzaindiakoa bezala» edo pixka bat aurrerago «ño, PNVkoa bezala!». Eta beti, beti, beti irri batekin, askotan ez dudalarik jakin ongi identifikatzen zer esan nahi zidaten zehazki.

Abesti bat ere bada nire izen-abizenak behin eta berriz aipatzen dituen, eta gainera maite nautela dioena, nahiz eta bestearen omenez den. Ni espetxean nintzen eta halaxe esan zidan nire anaiak: «Abesti bat egin dizute eta auzoko tabernetan denek zu maite zaituzte!». Ezin nuenez bertako tabernetan egon, lehen aldiz osorik entzun nuen eguna ez dut sekula ahaztuko: Soto del Realeko gure moduluan nire kide guztiek abestu zidaten espetxez aldatzen ninduten egunean.

Azken gertakaria nire izen-abizenekin duela egun batzuk pasa zitzaidan. Kaze-

tari batek haien komunikabidean mahai-inguru batean parte hartzeko gonbita luzatu zidan. Nik ezezkoa erantzun nion ordu eta egun hartan ezin nuelako. Ordu erdira beste email bat, beste gonbidapen batekin, hauteskunde gauean hizlari moduan aritzeko. Ezezkoa hau ere. Handik egun batzuetara beste proposamen bat, kontseilari ohiekin mahai-inguru bat egin nahi zutela. Kar kar! Ez zuen inongo momentutan nire presentzia nahi, PNVkoarena nahi zuen! Kazetari horri: milesker eguna alaitzeagatik! •